

DBH1 GIZarte: "Ni biziko nintzateke..." Ezagutzak

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
1. Eskainitako mapetan, hainbat kodetan emandako informazioa interpretatuz, lurraldeen kokapena zein ezaugarri fisikoei buruz eskatutako informazioa identifikatu eta emaitza laburki adierazi.	<p>1.1. Erreferentzi-lerroak era egokian kokatu ditu mapan.</p> <p>1.2. Emandako lurraldeak mapetan kokatu ditu, koordenatuak erabiliz.</p> <p>1.3. Mapa mota desberdinen funtzioak ezagutzen eta identifikatzen ditu.</p> <p>1.4. Zuzen erantzun ditu ordu-eremuen mapari buruzko galderak.</p> <p>1.5. Mapa topografikoan zuzen adierazi ditu kokapen zehatz batzuen altitudeak, ala nola altitude desberdinen arteko desnibelak.</p> <p>1.6. Eskala grafikoaz baliatuz puntu desberdinen arteko distantziak kalkulatu ditu.</p>
2. Lurralde baten kokapen eta ezaugarri fisikoekin lotutako informazioa mapa digital baten bidez irudikatu.	<p>2.1. Eskatutako informazioa mapa digitalean irudikatu eta partekatu du:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Mapa digitala sortu du eta izena ipini dio. - Ibilbidearen luzera kalkulatzeko aginduak zuzen eman ditu. - Eskatutako erliebe-elementuak mapan identifikatu ditu. - Sortutako mapa hartzailearekin partekatu du.
3. Hainbat euskarritan (irudiak, animazioak, testu idatziak, klimogramak, mapa tematikoak...) emandako datuak interpretatuz, klimari buruzko informazioa eskuratu eta digitalki erregistratu.	<p>3.1. Eguraldi iragarpenaren okerrak identifikatu eta zuzendu ditu.</p> <p>3.2. Kliman eragiten duten faktoreak eta horien ondorioak zuzen erlazionatu ditu.</p> <p>3.3. Leku bakoitzeko klima zein faktorek baldintzatzen duen identifikatu du, emandako informazioa oinarritzat hartuta.</p> <p>3.4. Klimograma osatu du, datu klimatikoak esparru digitalean txertatuz.</p> <p>3.5. Lurralde bateko klimari buruzko informazioa eskuratu du klimograma aztertuz.</p> <p>3.6. Klimograma erabilia lurralde bateko klimari buruzko informazioa eskuratu eta klima mota zuzen inferitu du.</p> <p>3.7. Sortutako klimogramak ematen duen informazioa aztertuz lurralde horren klimaren deskribapen testua osatu du.</p>
4. Ezarritako baldintzak eta leku jakin bateko ezaugarriak kontuan hartuz, haren egokitasunari buruzko ikuspegi arrazoitua adierazi.	<p>4.1. Hautaketen egokitasunari buruzko iritzi arrazoitua eman du, ezarritako baldintzen arabera.</p>